

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO
EUSKAL PROGRAMA**

**JARRAIPEN-MISIOA
PERU 2016**

Urtarrilaren 14a eta 15a



Euskal Ordezkaritza AMHBA eta AMAEFekin

Txostenaren egilea:

Leire Lasa Fernández.

CEA(R)
EUSKADI
Comisión de **Ayuda**
al **Refugiado** en Euskadi

Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa



Bilbao, 2016.

EDUKIEN AURKIBIDEA

SIGLAK.....	4
AURKEZPENA.....	5
ESKER ONA.....	6
OSAERA.....	7
IZANDAKO BILERAK.....	7
TESTUINGURUA.....	8
GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDEAK.....	10
EGOERA ESPEZIFIKOAK ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKO JAURLARITZAREN PROGRAMAN HARTUTAKO PERTSONEN ERAKUNDEAK:	
HUANCABAMBAKO EMAKUMEEN ELKARTEA (AMHBA).....	11
ERAKUNDE PUBLIKOAK.....	13
ONDORIOAK.....	15

SIGLAK

AMAEF: Derrigorrezko Antzutzeek Erasandako Emakumeen Elkarte (Cusco)

AMHBA: Huancabambako Emakumeen Elkarte

CDME: Huancabamba probintziako Derrigorrezko Antzutzearen Biktima izandako Emakumeen Giza Eskubideen Aldeko Batzordea

CIDH: Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra

CNDH: Giza Eskubideen Nazio Koordinakundea

DINOES: Prozedura Bereziak Atala

IAMAMC: Emakume Nekazarien Mugimendu Autonomoari Laguntzeko Institutua

SIS: Osoko Osasun Sistema

AURKEZPENA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak martxan du, 2011az geroztik, Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programa. Programa horren barruan, gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituen laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, Euskadin egingo duten sei hilabeteko egonaldiako ekintza hauek proposatzen dira:

1. Ikuspegi psikosoziala: Babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Programa hau gauzatzeko, politikoki eragin beharko da; aldi baterako babesak, bestela, ez du zentzu osoa izango. Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionaliki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horretaz gainera, programak balio du euskal herritarrei eta bertako erakunde publikoei —eta baita Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: Haien kezka eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenaz. Egin duten lanagatik aitortza jaso duten pertsonak direla kontuan izanda, txostengile gisa ere hartuko dute parte esparru akademikoetan eta sozialetan.

Programa CEAR-Euskadik koordinatzen du, eta hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere sartuta daude programan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEren Koordinatzailea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa. Gainera, Ansur Kolektiboaren laguntza du, segurtasunarekin eta babesarekin zerikusia duten kontuak kudeatzeko.

Jasotako bi pertsona Perura itzultzearen harira, euskal ordezkari bat joan da Perura urtarrilaren 14 eta 15ean, beren egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko, beren segurtasun-sarea indartzeko eta euskal gobernuaren eta antolatzaileen babesa agerian uzteko.

Txosten honetan bitarteko konturik esanguratsuenak jasotzen dira. Testuingurua atalean, herrialdearen egoeraren ikuspegi orokorra ematen da. Giza eskubideen erakundeetatik eta instituzio publikoetatik jasotako informazioa bi ataletan atxikita doa: Azkenik, Euskal Ordezkariaren analisia, balorazioak, kezka zehatzak eta gomendioak azken atalean jasotzen dira, Ondorioak izenpean.

ESKER ONA

Aldi Batez Babesteko programa eragin politikodun babes tresna bat da, jazarpen eta mehatxu testuinguruetan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta ordezkariak lurra bisitatzea proposatzen dugu.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarri egindakoa, ekarpen baliagarria da gure berradiskidetze-eraldaketa sozialaren prozesuetarako.

Euskal ordezkariak bere esker ona adierazten die Peruko erakundeei egin dioten harreragatik eta euren salaketan eta giza eskubideen aldeko lanaren berri emateagatik. Eskerrik asko, bereziki, Huancabambako Emakumeen Elkarteari (AMHBA), Derrigorrezko Antzutzek Erasandako Emakumeen Elkarteari (AMAEF) eta Emakume Nekazarien Mugimendu Autonomoari Laguntzeko Institutuari (IAMAMC) egia, justizia, osoko ordaintza eta ez errepikatzeko bermeak bilatzeko lan nekazariagatik.

Halaber, eskerrak ematen dizkiegu Peruko erakundeei, beren prestutasunagatik eta emandako denboragatik.

Azkenik, gure esker onik zintzoena adierazten diogu Abdulia Guevara Neyrari, bere indar eta giza kalitateagatik, eta gure elkartasuna, laguntza eta begirune sakona antzutuak emakumeei, gurekin biltzeko eta eskuzabaltasun handiz euren minak, euren salaketak, euren aldarrikapenak eta euren bizi itzaropenak partekatzeko Huancabambatik eta Antatik Limara iritsi zirenei.

OSAKETA

CEAR-Euskadi.

Patricia Bárcena García, zuzendaria.

Leire Lasa Fernández, Babesteko Euskal Programaren arduraduna

IZANDAKO BILERAK

	Lima
Gizarte erakundeak/kolektiboak	<ul style="list-style-type: none">• Huancabambako Emakumeen Elkarte (AMHBA)• Cuscoko Derrigorrezko Antzutzeek Erasandako Emakumeen Elkarte (AMAEF)• Emakume Nekazarien Mugimendu Autonomoari Laguntzeko Institutua (IAMAMC)• Peruko Giza Eskubideen Koordinakundea• Amnesty International• Entrepueblos – Herriarte• Redes Lantaldea Elkarte. La Casa de Panchita• <i>Cofines</i>• “Flora Tristán” perutar Emakumearen Zentroa• Quipu Proiektua• Bortxazko Antzutzei Laguntzeko Taldea (GREF)
Erakunde publikoak	<ul style="list-style-type: none">• Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioa• Emakumeen eta Herri Ahulen Ministerioa• Osasuneko ministro ordea• Hilaria Supa Andeetako parlamentaria

TESTUINGURUA

Peruk 30.135.875 biztanle dauzka (% 72,3 hiriko biztanleak eta % 27,7 landako biztanleak)¹. Herrialdeko osaketa etnikoak aldaketak izan ditu. Egun herritar mestizoen (% 44), amerindiarrek (% 31), zuriek (% 15), mulatoek (% 7), afrikarren ondorengoen (% 2) eta asiarrek (% 0,4) osatzen dute. Herri eleaniztuna da eta bertako 50 hizkuntza inguru ditu. Erabilienak gaztelania, kitxua eta aimara dira.

Bere kokapen geografikoa dela-eta, baliabide natural eta ekosistema mota asko dauzka. Munduan megadibertsitate handiena duten 10 herrialdeen artean dago eta funtsezkoa da hori planetako oreka ekologikorako.

Gizarte-protestaren kriminalizazioa

Peruko Giza Eskubideen Koordinakundearen (CNDH) arabera gizarte-protestaren kriminalizazioa eta errepresioa solasaldi eta elkarrizketa esparruekin bateratzen da, azken horien helburua herritarren desmobilizatzea izanik, egiatan herrialdeko arazoak konpondu gabe: giza eskubideen urraketa, batez ere ingurumenari eta herri indigenen lurralde-eskubideei lotutakoak, hala nola kontsulta aske eta informaturako eskubidearena. Herritarren Defentsa Bulegoak dioenez, gatazken % 60 baino gehiago gizarte eta ingurumenekoak dira.

CNDHk presidenteen azken hiru agintaldietan gizarte-protestako testuinguruetan ordenaren indarren eskuetan hildako 142 pertsona erregistratu ditu, 45 Ollanta Humalaren gobernuan, eta dokumentatuta dauzka hainbat ekintza, hala nola indarraren gehiegizko erabilera, atxiloketa arbitrarioak, torturak eta kazetarien aurkako erasoak. 2006az geroztik Herritarren Defentsa Bulegoak honen parte-hartzea saihestea gomendatu badu ere, Ekintza Bereziatarako Dibisioak (DINOES, terrorismoaren eta narkotrafikoaren aurkako ekintzetan indarraren muturreko erabilera egiteko trebatutako polizia kidego militarizatua) gizarte-protestetan esku hartzen jarraitzen du. Egoera larriagoa da landa eremuetan, batez ere herri indigenen arbaso-lurraldeak dauden tokietan eta erauzketa-enpresak diharduten tokietan. Han, DINOESek enpresa horiekin sinatutako kontratuzko akordioen esparruan dihardu eta bi manifestariren hilketaren arduraduna da Espinarren (Cusco), 2012an, eta manifestarien eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako torturen Xtrata Tintaya meatzaritza-enpresaren instalazioetan. Kasu horietan ez da batere zigorrik izan. 2002tik ez da kondenarik egon indarraren gehiegizko erabileragatik.

Emakumeen giza eskubideen urraketak: Bortxazko antzutzak (1995-2000)

1995-2000 aldian Alberto Fujimori presidente ohiaren gobernuak “*Ugalketa-Osasunerako eta Familia Plangintzarako Programa Nazionala*” abiarazi zuen. Haren bidez, jaiotza-kontrolerako politika bat ezarri zuen, batez ere herrialdeko alde urrunetatik etorritako emakume indigenak eta nekazariak antzutzeko, kitxua hiztunak gehienak, baliabide ekonomiko urrikoak eta hezkuntza urrikoak.

Ez da zenbaki zehatzik ezagutzen baina kalkulatu da 215.227 emakume inguru eta 16.000 gizon inguru operatu zituztela. 18 emakume hil ziren medikuen praxi desegokiagatik², askok abortuak pairatu zituzten (haurdun zeuden ebakuntzaren unean) eta askok hainbat ondorio fisiko eta psikologiko nozitzen dituzte egun.

Biktimen salaketek eta lekukotasunek ezaugarri komunak dauzkate:

- Programa pizgarriak edo mehatxuak erabiliz ezarri zen: ospitaleetara edo osasun-zentro edo -postetara euren borondatearen aurka eraman zituzten. Hala, giltzaz itxi edo andetara lotu zituzten, haien seme-alabak erregistro zibiletan edo elikatzeko laguntza programetan ez

¹ Estatistikako Institutu Nazionalaren 2012ko ekainaren 30erako datuak.

² Herritarren Defentsa Bulegoaren 27. txostenean dokumentatutako kasuak.

inskribatzearekin eta agintarien aurrean salatzearekin mehatxatzen zituzten. Ez zuten lehenagoko informaziorik jaso euren ama-hizkuntzan eta ez zuten euren baimena eman.

- Kontrazepzio kirurgikoko jaialdiak edo kanpainak egin ziren, metodo hura hobetsiz familia-plangintzako beste metodo batzuen gainetik.
- Antzutu behar ziren emakumeen kopuruari buruzko xede programatikoak ezarri ziren.
- Ebakuntzak baldintza osasungaitzetan egin ziren, ebakuntza-aurreko analisirik eta ebakuntza-ondoko jarraipenik gabe.

2003ko urriaren 10ean, Peruko estatuaren eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) 71/03 txostenaren bidez, akordio adiskidetsu batera iritsi ziren, 1998ko martxoaren 27an Cajamarcako ospitalean hil zen María Mamerita Mestanza Chávez anderearen senideen salaketa batek eraginda. Orduan Peruko estatuak hartu zuen konpromisoetako bat gertakariaren ikerketa sakon bat egitea eta parte hartu zuten pertsona guztien aurkako legezko zehapenak jartzea izan zen, izan egile intelektualak, materialak, bitartekoak edo bestelakoak, baita funtzionario zein zerbitzari publikoak, zibilak nahiz militarrek, baziren ere.

Urte horretan bertan Huancabambako probintzian Derrigorrezko Antzutzearen Biktimia izandako Emakumeen Giza Eskubideen Defentsa Batzordea (CDME) sortu zen, Huancabambako Emakumeen Elkarteko (AMHB) eta Emakume Nekazarien Mugimendu Autonomoari Laguntzeko Institutuko (IAMAMC) 200 emakumek baino gehiagok osatuta.

12 urtez ikerketari oztupoak jarri eta bost aldiz artxibatu ondoren, 2015eko maiatzean, AMHBA eta AMAEF (Cuscoko Derrigorrezko Antzutzeek Erasandako Emakumeen Elkartea) erakundeetan antolatutako emakume lotuen ekiteari eta eskaerari esker, berriz zabaldu zen ikerketa 2.000 biktimak baino gehiagok jarritako salaketagatik eta zenbait departamentutan eginbideak egiten hasi ziren. Garu egun, Fiskaltzak bere ebazpena ematearen zain daude.

Kasu horretan Alberto Fujimori presidente ohia, Marino Costa Bauer, Alejandro Aguinaga Recuenco eta Eduardo Yong Motta haren ministro ohiak eta Osasun Ministerioko beste goi-funtzionario batzuk daude ikertuta zenbait delitu leporatuta, hala nola lesio larriak, lesio larriak eta ondorengo heriotza eta derrigortzea. Ez da baztertzeko giza-erabileraren aurkako delitua izatea, jardunbide sistematiko eta orokortua izateagatik.

2015eko azaroaren 6an gobernuak 006 – JUS Dekretu Gorena argitaratu zuen. Dekretu horrek interes nazionalerako izendatu du 1995-2001 artean eragindako bortxazko antzuteen biktimen lehentasunezko arreta eta Biktimen Erregistro Bakarra sortu du Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioaren ardurapean. Haren helburua biktimentzako doako lege-laguntza, laguntza psikologikoa eta osoko osasun-arreta lehentasunez gauzatzeko esparru juridikoa ezartzea da.

Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioak, Osasun Ministerioak eta Emakumearen eta Herri Ahulen Ministerioak arau osagarriak egin behar dituzte biktimek kalitatezko osoko osasun-arreta eta lege-laguntza egokia jaso ditzaten, arduradunak zigortzea lortzeko.

Arau horrek aurrerapena ekarri du biktimen aldarrikapenetan. Izan ere, biktimen kopurua, haien jatorria, gertakariaren inguruabarrak, haietan parte hartu zuten pertsonak eta eragindako ondorioak ezagutzea ahalbidetuko du, besteak beste.

GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDEAK

Gizarte-protestaren kriminalizazioa

Giza eskubideen erakundeek esan digutenez, igo egin da herrian gizarte- eta ingurumen-gatazken eta erauzketa-enpresek lurraldeetan eragiten dituzten giza eskubideen urraketen kopurua: kontsultatuak izateko eskubidea, bortxazko desplazamenduak.

Salatzen dutenez, gizarte-protesta kriminalizatzen eta erreprimitzen dituzten legeak atera dira. Estrategia horiek eredu berari jarraitzen diote Latinoamerika eta Karibeko herrialdeetan, eta gizarte-erakunde eta -mugimenduak masa-hedabideen eta auzipetze prozesuen bidez estigmatizatzea eta izen ona belztea bilatzen dute. Haien ustez, estatuarentzat biltzeko, iritzia izateko eta elkartzeko askatasuna mehatxua da eta indarraren gehiegizko erabilera salatzen dute.

Giza eskubideen defendatzaileen egoera

Esan digutenez, giza eskubideen defendatzaileak mehatxatuenak ingurumenaren arloko liderrak eta sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak defendatzen dituzten emakumeak dira eta, haien



aburuz, erauzketa eredu ekonomikoa eta eliza katolikoaren boterea (abortuaren eta berdintasunezko ezkontzaren erabat aurka egonik) indartzea egoera azaltzen duten testuinguruaren osagaietako batzuk dira. Esparru horretan, LGBTI herritarrak eta sexu-dibertsitatearen (batez ere trans) eskubideen defendatzaileak eraso asko pairatzen ari dira.

Bortxazko antzutzek

Haien ustez, bortxazko antzutzek ekarri zituzten erabakitzeko eskubidearen urraketa eta emakumeen gorputzen gaineko indarkeria lehentasunezko gaia da herrialdean giza eskubideak defendatzeko eta emakumeen erakundeek eta beste erakunde misto batzuek emakume antzutuen eskaerekin bat egitera eta mobilizazioetan haiekiko elkartasuna erakustera deitzen dute.

Antzutzek estatu-politika gisa diseinatu zirela salatzen dute eta haien eta lurraldearen kontrolaren arteko balizko lotura aipatzen dute.

Gogorarazten dutenez, Peruko estatuak konpromisoa hartu zuen CIDHren aurrean gertakarien ikerketa sakona egiteko baina emakume antzutuek, aldiz, tratatu txarrak jasaten dituzte oraindik zenbait osasun-zentro eta -postatan (adib. Anta, Cusco), bizi osorako kalitatezko osoko osasun-arreta jaso behar luketenean.

EGOERA ESPEZIFIKOAK: Aldi Batez Babesteko Eusko Jaurlaritzaren programaren pean hartutako pertsonen erakundeak

Huancabambako Emakumeen Elkartea (AMHBA)

Huancabambako Emakumeen Elkarteko (AMHBA) emakume antzutuen bileran Derrigorrezko Antzuzteek Erasandako Emakumeen Elkartek (AMAEF) eta Emakume Nekazarien Mugimendu Autonomoari Laguntzeko Institutuak (IAMAMC) ere parte hartzen dute.

Emakume antzutuek adierazi digutenez, egia, justizia, osoko ordaintza eta ez errepikatzeko bermeak eskatzen dituzte. Errespetua eta ordain ekonomiko hutsa ez den ordaintza eskatzen dituzte. Ordaintza horretan kalitatezko osoko osasun-arreta sartu behar da, pairatzen dituzten ondorio fisiko eta psikologikoengatik.



19 urtez baino gehiagoz justizia eskatu ondoren, osasun-arreta egokirik ez dutela salatzen dute. Antzutu zituzten mediku berberak jarraitzen dute arreta ematen osasun-zentro eta -postetan. Arreta eskasa da eta ondorioak ibuprofeno eta parasetamol emanez artatzen dituzte beti; praxi desegokia deritzote horri.

Nekazariak dira haien denak. Ondorio fisikoek landan lan egitea galarazten die eta horren ondorioz euren senarren eta komunitatearen tratu txarrak jasaten dituzte. Zenbait bikote sexual izateko eta lanik egin behar ez izateko euren borondatez antzutu dituztela leporatzen diete. Senarren irainak ("*nagiak*", "*alferrontziak*") jasan eta eraso fisikoak, abandonuak eta kontrol ekonomikoa pairatzen dituzte.

Halaber, amak antzutu eta anesthesiatu zituzten unean bularrekoak ziren haurren garapenean ere ondorioak aipatzen dituzte.

Kontatzen dutenez, iruzur egin zieten ebakuntza egiteko eta batzuk indarrez operatu zituzten. Halaber, haurdunei egindako ebakuntzen berri ere ematen dute, anesthesiarik gabe edo animalientzat erabiltzen dena jarrita.

Esan digutenez, ez daukate agintarien laguntzarik eta haien artean fujimorismotik gertuko pertsona asko daude. Zenbait mugimendu feministaren elkartasunik ere ez dute sentitu.

Eskertuta daude, ordea, giza eskubideen emakume defendatzaile batzuegandik jasotako laguntzagatik. Haien artean, besteak beste, Giulia Tamayo eta Josefa Ramirez daude. Laguntza horri esker Andeetako emakume indigena antzutu asko buruzagiak dira orain.

Datozen presidentziarako hauteskundeak direla-eta oso kezkatuta daude, haietan Keiko Fujimori Alberto Fujimori presidente ohiaren alaba buru dagoelako inkestetan. Haren garaipenak oztopo larria ipiniko lieke emakume antzutuen aldarrikapenei. Eta euren buruari galdetzen diote ea zergatik ez dagoen arazo hori hautagaien gobernu-egitasmoetan gizateriaren aurkako delitu baten aurrean egonik.

Azkenik, zenbait buruzagi, hala nola Obdulia Guevara Neyra, Babesteko Euskal Programaren onuraduna 2015ean, eta Esperanza Huayama Aguirre AMHBAko presidentea jasaten ari diren mehatxuak salatzen dituzte.

Biktimen Erregistro Bakarra

Pozik daude Biktimen Erregistro Bakarra sortu duen 006 – JUS Dekretu Gorena argitaratu izanagatik, emakume antzutuen aldarrikapenetako bat baita. Prozesua hasteko, erroldatzeak egingo dira, Antan (CUSCO) hasita, toki enblematikoa izanik. Fiskalek eta itzultzaileek (emakume asko kitxua hiztunak dira) 30 bat lekukotasun jasoko dituzte egunean. Helburua biktimen unibertsoa ezagutzea da. Haien ustez, emakume asko isilik geratu dira, ezkutatuta beldur edo lotsagatik. Erroldatzearen ondoren, biktimek Osoko Osasun Sistema (SIS) eta doako lege-defentsa izango dituzte.

Fiskal batzuek Limako Nazioz gaindiko Fiskaltzan 2015eko apirilean irekitako ikerketaren esparruan emandako tratua (isekak, erantzun jakin batzuetara bultzatzea) salatzen dute emakumeek.

Honako eskariak egiten dituzte:

- Nazioarteko komunitateak laguntzea eta laguntza politikoa ematea.
- Laguntza juridikoa haien eskaerak (egia, justizia, osoko ordaintza eta ez errepikatzeko bermeak) aurrera eramateko.
- Biktimen Erregistro Bakarraren gauzapena monitorizatzea: estatuaren aparatu osoa herrialdeko landa-eremuetatik mugitu bazen emakumeak antzutzeko, orain, bitarteko gehiago egonik, baliabideak erabil daitezke lana zorrotzasunez eta emakume antzutuekiko begirunerik handienaz egiteko.
- Haien sexu-eskubideen eta ugalketa-eskubideen aldeko lana egiteko babesa eta segurtasuneko bermeak.



ERAKUNDE PUBLIKOAK

Euskal Ordezkaritzak bere kezka adierazi die erakunde publikoei AMHBako buruzagi mehatxatuen segurtasunagatik eta interesa agertu die Biktimen Erregistro Bakarra gauzatzeko mekanismoei buruz.

Hilaria Supa Andeetako parlamentaria

Andeetako parlamentariak salatzen duenez, antzutzeak estatu-politika izan ziren, bereizkerian, botere-gehiegikerian, arrazakerian eta matxismoan oinarrituta. Dioenez, ebidentzia askok frogatzen dute osasun ministroek Alberto Fujimori presidenteari ematen ziotela astean egindako antzutzeen kopuruaren berri, eta ordainak jasotzen zituztela horregatik. Alegia, kuotak finkatu ziren eta haiek betetzen zituzten medikuak saritzen ziren.

Beijingeko Mundu Biltzarrean (1995), Alberto Fujimorik konpromisoa hartu zuen herrialdeko herritar guztiengana iritsiko ziren familia-plangintzako politikak egiteko, txirotasuna borrokatzeko helburuz.

Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioa

Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioak adierazi digunez, 006-2015 Errege Dekretuak interes nazionaleko izendatu du 1995 eta 2001 artean eragindako bortxazko antzutzeen biktimen lehentasunezko arreta eta Biktimen Erregistro Bakarra sortu du. Hura egiteko berariazko neurriak ezarri beharko dira. Kronograma El Peruanon argitaratu dute eta, beraz, Ministerioak sektore askotakotzat jotzen duen lanari ekin behar dio. Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioaren eta Emakumearen eta Herri Ahulen Ministerioaren konpromisoa aipatzen du.

Zerrenda egin ondoren biktimei ordaintza emateari dagokionez, dioenez, Errege Dekretuaren helburua osasunerako (fisikoa zein psikologikoa) eskubidea konpontzeko helburua dauka eta dagokion zuzendaritzara bideratzen gaitu urrats horiek sakontasun handiagoz ezagutzeko.

Konpromisoa hartzen du Barne Arazoetarako Ministerioari euskal ordezkaritzak biktimen zerrendak egiteko emakume antzutuei elkarrizketak egiteko moduagatik duen kezka helarazteko.

Azkenik, balizko gobernu aldaketari eta hasi berri den prozesuan izan dezakeen eraginari buruz, epe laburrean arau bat aldatzea zaila dela eta prozesuak tarte batez aurrera egiten jarraituko duela adierazi digu. Aitortu egiten du, ordea, biktimen zerrenda egin ondorengo fasean, ordaintza motak erabakitzekoan, oztopoak jar litezkeela.

Emakumeen eta Herri Ahulen Ministerioa

Emakumeen eta Herri Ahulen Ministerioak esan digunez, 2012an Genero-Indarkeriaren aurkako Zuzendaritza Nagusia sortu zen eta, haren biktimen definizioan, bortxaz antzutatutako emakumeak jaso ditu. Zuzendaritza horrek egiten du bere, Errege Dekretuaren esparruan, kasuen jarraipena, batez ere enblematikoena. Diotenez, biktimek aholkularitza psikologiko legal eta soziala izango dute.

Konpromisoa hartzen du bortxazko antzutzeek emakumeen bizitzaren eta gorputzaren gainean duten inpaktu mediko, psikologiko eta soziala zehazteko ikerketa bat egin dadin euskal ordezkaritzak duen kezka helarazteko.

Azkenik, AMHBako buruzagien aurkako mehatxuei buruz, diotenez, oso garrantzitsua da Ministerioari gutunak bidaltzea egoera horiek salatuz eta haien berri emanez, haiek ezagutu eta neurriak bultzatu ahal izateko.

Osasun Ministerioa

Bestalde, euskal ordezkariak aukera izan zuen, behatzaile izanik, AMHBA eta AMAEFko emakume antzutuek Percy Luis Minaya Leon osasuneko ministro ordearekin izan zuten bilera parte hartzeko. Bilera horretan osoko osasun-arretari buruz dituzten aldarrikapenak eraman zizkieten. Emakumeek begirunea eta osasun-arreta espezializatua eskatu zituzten (ez daitezela izan antzutu zituzten mediku berak arreta ematen dietenak). Bestalde, orain arte jasandako tratuagatik duten mesfidantza izugarria dela-eta, Ministerioak eurak aztertzeko izendatuko dituen pertsonen izenak ezagutu nahi dituzte.



Osasuneko ministro ordeak onartu egiten du ez dagoela komunikaziorik erakundeekin eta komunitateetara iritsi eta emakume antzutuek bizi duten egoeraren helmena ulertu behar dela. Haren ustez, eskubideak itzultzeko prozesu bat da eta gobernuak Errege Dekretuan ezarri den osoko osasuna emateko duen konpromisoa

berresten du. Dioenez, estatuak erantzun eta arreta eman behar die emakume guztiei eta tratuak duina izan behar du. Erronka komunitate guztietara iristeko antolakuntzan dago eta emakumeek departamentu edo probintzietako hiriburuetara joan behar ez izatea.

Haren ustez, ordaintza-prozesuaren helmena ulertzeko, komunitatearen osasun mentala hartu behar da kontuan.

Dioenez, ezin ditu eman komunitate bakoitzera joango diren medikuen izenak eman baina, ziurtatu duenez, aditu talde bat mobilizatuko dute eta, ildo horretatik, haiengana iritsi ahal izateko lankidetzak eta koordinazioa ere eskatzen ditu.

Azkenik, orain arte egindako esfortzuek espero ziren emaitzak eman ez dituztela onartzen du, oraindik erakundeekiko mesfidantza dagoelako, eta barneko lan-esparru bat irekitzen du emakumeen eta ministro ordearen eta bere taldearen artean adierazitako eskaerei heltzeko. Euskal ordezkariak ez du parte hartzen esparru horretan.

ONDORIOAK

Euskal Ordezkaritzak bere elkartasuna adierazten du Alberto Fujimoriaren gobernuak 1995 eta 2000 artean ezarri zuen “*Ugalketa-Osasunerako eta Familia Plangintzarako Programa Nazionala*”ren esparruan derrigorrez antzutatuko emakumeek egiten dituzten egia, justizia, ordaintza eta ez errepikatzeko bermeen eskaerekin, eta eskerrona adierazten die egindako harrera apartagatik eta euren lekukotasunak, itxaropenak eta minak partekatzeko eskuzabaltasunagatik.

Aurrerapenak

Pozik dago biktimen lehentasunezko arreta interes nazionaleko izendatu eta Erregistro Bakarra sortzea sustatzen den 006-2015 Dekretu Gorena onartzeak dakarren aurrerapen garrantzitsuagatik.

Kezkak

Esparru horretan, bere egiten ditu bisitan jasotako kezka orokorretako batzuk:

- Herrialdean gizarte-erakunde eta -mugimenduen aurkako kriminalizazioa eta errepresioa areagotzea eta herrialdeko giza eskubideen defendatzaileen segurtasuna, bereziki larria emakumeen eta lurra eta lurraldea defendatzen dutenen kasuan.
- Fiskal batzuek Limako Nazioz gaindiko Fiskaltzan 2015ean irekitako ikerketaren esparruan lekukotasunak biltzean bortxaz antzutatuko emakumeei emandako tratua.
- AMHBAko buruzagiek, zehazki 2015ean Babesteko Euskal Programaren pean jarritako Obdulia Guevara Neurak eta Esperanza Huayama Aguirre Elkarteko presidenteak, jasandako mehatxuak.

Gomendioak

Honako hau gomendatzen diegu Peruko erakundeei:

- Biktimen Erregistro Bakarra garatzen jarraitzea erasandako emakumeen erakundeekin lankidetzan. Funtsezkoa deritzegu herrialdeko alde guztietara iristeari, emakumeek euren hizkuntzan hitz egin ahal izateari eta segurtasun eta begiruneko baldintzetan egiteari.
- Mehatxatutako AMHBAko buruzagien eta gainerako emakume antzutuen segurtasuna zaintzea.

Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programak babes eta eragin politikorako tresna gisa duen konpromisoa berresten du, giza eskubideen erakundeek euren lana segurtasunez egin ahal izaten laguntzeko. Alde horretatik, programan parte hartzen duten erakunde publiko eta sozial guztiek arretaz jarraituko dute prozesua, eta babestutako pertsonen eta haien erakundeen egoerei etengabeko jarraipena egingo diete.